

Artziniega, 2021eko ekainaren 14a

## **EAJ-PNV Artziniegak aisialdi eredu berriak bultzatu ditu Udal Gobernuari (EH-Bildu) kirol anitzeko pista berriak jartzeko eskatuz**

- *Bizikletan, patinetean edo skatean pump-tracka bezalako diziplinak gauzatu ahal izateko espazio publikoak eraikitzea proposatzen du*

**Artziniega EAJ-PNVren udal-taldeak** ingurune naturalean kirol-eredu berriak sustatzea helburu duten ekimenak aurkezten jarraitzen du, jakinik gure udalerriko biztanleek gero eta gehiago eskatzen dituztela aire zabaleko kirol-jarduerak egiteko guneak, eta aisialdi aktiboa eta osasungarria sustatuko duten aukera berriak ere sartzten dituela.

**Encina Castresana** EAJ-PNVren Artziniegako bozeramaileak azaldu duenez, "aisialdirako eta, batez ere, asteburuetarako alternatiba bat ezartzea da gure planteamendua, baina aldi horretan gazteen entretenimenduaren dinamikak aldatu egin direnez, gure betebeharra joera berrietara egokitzea dela uste dugu, bereziki udal espazio publikoei dagokienez".

Gainera, "Kirol proposamen hauekin, aisialdi inklusiboa eta berdintasunezkoa sustatu nahi dugu, entretenimenduaren beste ezaugarri bat bezala, edonork parte har dezakeen jarduerak garatuz, kirol jarduera mistoak bultzatzen baitira", gaineratu du.

Horregatik guztiagatik, "Udaleko Gobernu Taldeari eskatzen diogu, EH-Bilduren alkatetzapean, pump-track zirkuitu bat jartzeko, bai bizikleta modalitatean, bai patinete edota skate modalitatean, udalerriko kirol eremuan", amaitu du zinegotzi jeltzaleak.